

En la Casa Consistorial del M. I. Ayuntamiento de Auritz/Burguete siendo las 08:30 horas del día 28 de marzo de 2022, se reunió el Ayuntamiento al objeto de celebrar sesión extraordinaria con la asistencia de los Sres/as. Concejales/as D. Juan Miguel Juandeaburre Ainciburu, D^a. Ana Azanza Burusco, D^a Miren Oyarbide Lapazaran y D. Mikel Gaztelu Alonso bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. José Irigaray Gil, actuando como Secretaria de la Corporación Doña Marisol Ezcurra Iurre.

ÚNICO. - APROBACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE AURITZ/BURGUETE Y NAVARRA DE SUELO Y VIVIENDA EN MATERIA DE VIVIENDA.

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que informa que tras la reunión informativa del pasado 17 de febrero celebrada en Aribe en la que se expusieron la nueva reglamentación de ayudas para la rehabilitación de edificios públicos, consideró que había posibilidad de reconvertir los pisos de la Maestra y del Maestro junto con el sabaiao de esa parte de la casa Consistorial en tres viviendas ya que cabía la posibilidad de que el Ayuntamiento invirtiera unos 15.000 € por vivienda, coste, en principio, asumible por el municipio, trasladando a Nasuvinsa que el Ayuntamiento estaba dispuesto a firmar un convenio para ejecutar la rehabilitación y que Nasuvinsa llevara la gestión de alquiler social, aportando una memoria valorada realizada por Nasuvinsa en 2011. Por otra parte, dado que los precios de 2011 no tenían nada que ver con los de la actualidad encargó al arquitecto D. Eduardo Echeverri Tapia una nueva memoria actualizada que la remitió a Nasuvinsa. El pasado 17 de marzo Nasuvinsa remitió un cálculo de la cantidad que debería aportar el Ayuntamiento y teniendo en cuenta la situación actual del mercado y los costes de obra, honorarios técnicos, otros gastos necesarios y el IVA aplicable ascendía a 53.572,42 €, debiendo comunicar por escrito la decisión antes del 4 de abril. Poniéndose en contacto con Nasuvinsa, preguntó si para ese cálculo se había tenido en cuenta la memoria valorada de 2011 o la de 2022, respondiéndole que el resultado venía dado de tomar la de 2011 añadiéndole un 33%, razón por la cual pidió un nuevo cálculo sobre la memoria de D. Eduardo Echeverri Tapia ascendiendo esta vez a 540.094 €. Resultando en el nuevo prorrateo que el Ayuntamiento debía aportar 266.351,58 €. Cantidad que tanto él como Intervención Municipal entienden que dada la situación económica del municipio y los grandes compromisos con otras obras pendientes no se puede asumir. Añade que, junto con el técnico de rehabilitación Carlos Múgica se han estudiado otras ayudas en aras a rebajar la cantidad.

El informe de D. Eduardo Echeverri, se divide en tres actuaciones: Sustitución completa de cubierta y estructura por un importe de 131.016 €, interior de viviendas, que asciende a 352.793 € y accesibilidad, sin incluir ascensor valorado en 56.284 €. Siendo en total 540.094 €.

El alcalde Sr. Irigaray informa que el estado del tejado es deficiente, causa por la que sube el importe que hay que imputar a las viviendas ya que es necesario sustituir toda la

estructura tal como se hizo en los otros dos cuerpos del edificio, por lo que propone trabajar en buscar financiación para la reforma de la cubierta y posteriormente actuar en el interior de los pisos.

Debatido el asunto la Corporación acuerda por unanimidad:

-No firmar el acuerdo de rehabilitación con Nasuvinsa, por no poder hacer frente a ello dada la situación económica actual del Ayuntamiento de Auritz/Burguete.

-Trabajar en conseguir financiación para ejecutar en una primera fase la cubierta del edificio.

-Comunicar el presente acuerdo a Nasuvinsa.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 08:30 horas. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko udaletxean, 2022ko martxoaren 28ko 8:00etan, Udala Bildu zen bilkura berezia egiteko. Bertaratuak: Juan Miguel Juandeaburre Ainciburu, Ana Azanza Burusco, Miren Oyarbide Lapazaran eta Mikel Gaztelu Alonso zinegotziak, bilkuraburu alkatea, Jose Irigaray Gil, izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

BAKARRA. - AURITZEKO UDALAREN ETA NASUVINSAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA ONARTZEA, ETXEBIZITZAREN ETA LURZORUAREN ARLOAN

Irigaray alkateak hartu du hitza, eta jakinarazi du joan den otsailaren 17an Ariben egindako bilera informatiboaren ondoren, non eraikin publikoak birgaitzeko laguntzen araudi berria azaldu baitzen, pentsatu zuela aukera zegoela maistraren eta maisuaren pisuak, udaletxearen zati horretako sabaiarekin batera, hiru etxebizitzatan birmoldatzeko, Udalak, hasiera batean, 15.000 €-ko inbertsioa egin zezakeelako etxebizitza bakoitzeko. Eta Nasuvinsari jakinarazi dio Udala prest dagoela birgaitzea gauzatzeko hitzarmen bat sinatzeko. Hitzarmen horren bidez, Nasuvinsak eramango luke alokairu sozialaren kudeaketa, eta Nasuvinsak 2011n egindako memoria baloratua aurkeztu du. Bestaldetik, 2011ko prezioek oraingoekin zerikusirik ez dutenez, memoria eguneratzea eskatu zion Eduardo Echeverri Tapia arkitektoari eta Nasuvinsara igorri zuen. Joan den martxoaren 17an, Nasuvinsak Udalak jarri beharko lukeen zenbatekoaren kalkulua bidali zuen, eta merkatuaren egungo egoera eta obra-kostuak, ordainsari teknikoak, beharrezko beste gastu batzuk eta BEZ aplikagarria kontuan hartuta, guztira 53.572,42 €-koa zen, eta erabakia apirilaren 4a baino lehen jakinarazi behar zen idatziz. Nasuvinsarekin harremanetan jarri zen, kalkulua egiteko 2011ko memoria edo 2022koa kontuan hartu ote zen galdetzeko, eta erantzun zioten emaitza 2011koa hartuta zetorrela, eta % 33 gehitu zitzaizkion; horregatik, Eduardo Echeverri Tapiaren memoriari buruzko kalkulu berri bat eskatu zuen, 540.094 eurokoa.

Kalkulu berriaren arabera Udalak 266.351,58 € jarri beharko luke. Bere ustez eta Udalaren Kontuhartzaitzaren ustez, udalaren egoera ekonomikoa kontuan hartuta eta egin behar diren obrak kontuan hartuta, ezin da gastu hori asumitu. Gaineratu du zaharberritze teknikariarekin batera, Carlos Mugica, beste diru-laguntza batzuk aztertu dira zenbateko hori jaisteko.

Eduardo Echeverriren txostena hiru zatitan banatzen da: teilotu eta egitura osoa aldatzea: 131.016 €, etxebizitzaren barnealdea: 352.793 € eta irisgarritasuna, igogailu gabe, 56.284 €. Guztira: 540.094 €.

Irigaray alkateak jakinarazi du teilotuaren egoera txarra dela, eta horregatik igo dela etxebizitzetara egotzi beharreko zenbatekoa; izan ere, egitura osoa ordezkatu behar da, eraikinaren beste bi ataletan egin zen bezala. Horregatik, teilotua berritzeko finantzaketa bilatzen lan egitea proposatu du, eta, ondoren, solairuen barruan jardutea.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

-Ez sinatzea zaharberritze akordiorik Nasuvinsarekin, Udalak ezin duelako orain gastuei aurre egin.

-Lehenengo fase batean eraikinaren teilotua konpontzeko finantzazioa lortzen saiatzea.

-Nasuvinsari erabaki honen berri ematea.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 08:30ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.